

Osoko Bilkurak, 2015eko otsailaren 24ean egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**13.- HONDAKINEN KONTROLIK GABEKO ISURKETA SAHHESTEKO ZAINTZARAKO BIDEOKAMERAK JARTZEA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATU FITXATEGIAK SORTZEA. — Bego Zuzak azaltzen du gaia.**

Aztertu da Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostena hondakin bilguneetan bideokamerak ezarri ahal izateko datuen babeserako fitxeroa sortzeari buruzko txostena. Txosten horrek jasotzen du izaera pertsonaleko datuak babesteko legedia, Udalak dituen betebeharrak eta jarraitu beharreko prozedura.

2004ko urriaren 21eko Udaltzaren akordio bidez Hernaniko Udalak onartu zuen izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategien sorrera, eta horien SEgurtasun dokumentua, 2004-10-28ko GA0-n argitaratu zelarik.

Geroztik Hernaniko Udalak martxan jarri zuen Atez atezko zaborbilketa sistema hiritar hondakin bilketarako, zenbait bilketa gune sortu zirelarik.

Hernaniko Udalak, hondakin gaian dituen eskuduntzak egikaritu ahal izateko- besteen artean kontrolik gabeko hondakin isurketak kontrolatzea-beharrezkoa du bideozaintzarako kamerak jartzea.

15/99 Legearen 20 artikulua diona kontutan hartuta: izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, Dagokion Boletin ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez sioilik egin daitekeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia.

Datuen Babeserako Erregistroa eratzen duen 2/2004 Esuko Legibiltzarraren Legearen 18 art-k diona kontutan hartuta: bere eremuan sartzen diren datu pertsonalen fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.

Kontutan hartuz 308/2005 Dekretua, 2/2004 Legea garatzen duena- ezartzen du Euskal Komunitate Autonomoko Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinerazi behar diotela izaera pertsonaleko datuen fitxategien sorrera, aldatzea edo deusezte oro, horetarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2015eko otsailaren 19an emandako irizpena.

Alkate-lehendakariak bozketa egin du. Hona hemen emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- Kontrako botoak: 5 (3 EAJ-PNV eta 2 Euskal Sozialistak).
- Abstentzioak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Martindegi, Elizatxo, Osiñaga eta Jauregiko hondakin bilketa guneetan bideozaintzako kamerak jarri eta erabiltzeko prozedura hastea.

2.- Izaera pertsonaleko datuen fitxategi hauek sortzea, bere zehaztapenak dagokion Eranskinean biltzen direlarik:

a.- Fitxategiaren izena: Martindegiko bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

b.- Fitxategiaren izena: Elizatxokoo bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

c.- Fitxategiaren izena: Osiñagako bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

d.- Fitxategiaren izena: Jauregiko bilketa gunearen bigilantzia bideokamara bidez.

Jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko adierazten dizut.

**Hernanin, 2015eko martxoaren 27an.**

**IDAZKARIA,**